

Atariak ordutegi berria estreinatuko du urte berriarekin batera

Andoainen, 24-12-30.- Ataria Herritarren Arreta Zerbitzuak hainbat egokitzapen izango ditu urte berria hastearekin batera. Zerbitzua herritarren beharretara eta erabilpenera egokituko da, eta hala, besteak beste, zerbitzua indartu egingo da puntako orduetan langile baten errefortzuarekin.

Bestalde, itxaron zerrendak gutxitzeko helburuz, txandak banatzeko makina ere jarriko da datozen asteetan. Sortzen diren ilaren itxarote denbora murriztea eta eginbeharrak antolatzea da honen xedea. Hala nola, gogora ekarri nahi da hainbat tramite egin ahal izateko makina dagoela Ambrosia Olabide eraikinean. Besteak beste, sarrera erregistroa dago eskuragarri bertan, errolda eskuratzeko aukera, hainbat agiri ordaintzeko aukera...

Bukatzeko, ordutegi berria izango du aurrerantzean Atariak: egunero 8:00etatik 14:30etara egongo da zabalik, ostegunetan salbu; egun horretan 8:00etan zabaldu eta 15:30etan itxiko da.